



# **GIZARTE LANGILEAK**

## **1. ariketaren 2. atala**

**2021-09-24**





**1.- Lan-arriskuei buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legearen eta lege hori garatzen duten arauen ondorioetarako, "prebentziotzat" hartzen da:**

- a) Enpresaren jarduera-fase guztietan ezarritako edo aurreikusitako jardueren edo neurrien multzoa, lanak eratorritako arriskuak saihesteko edo horiek murrizteko.
- b) Lanaren ondoriozko arriskuak saihesteko edo gutxitzeko enpresaren jarduera-faseren batean hartutako edo aurreikusitako jarduera edo neurrietako batzuk.
- c) Arriskuak murrizteko asmoz enpresaren jarduera-fase batzuetan bakarrik hartutako edo aurreikusitako jardueren edo neurrien multzoa.
- d) Enpresaren jarduera-fase batzuetako jarduera jakin batzuen multzoa, arriskuak murrizteko.

**2.- Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako Planaren (2013-2016) lan-ardatzak hauek dira:**

- a) Indarkeria matxista ezabatzea eta emakumeen ahalduntzea sustatzea.
- b) Gobernu ona.
- c) Bizimodu eramangarria erdigunean jartzea.
- d) Aurreko guztiak Planaren ardatzak dira.

**3.- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoan dauden pertsonak jaso ahal izango dute/dituzte:**

- a) Informazio-, balorazio-, diagnostiko- eta jarraipen-zerbitzua.
- b) Akonpainamendu soziala.
- c) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Karteran orokor gisa zehaztutako gizarte prestazioak.
- d) Erantzun bakar bat ere ez da zuzena.

**4.- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, udalen eskumena izango da, beren lurralde eremuan, besteak beste, eginkizun hauek betetzea:**

- a) Gizarte-zerbitzuen arloan beren zerbitzuak antolatzeko erregelamenduak egiteko ahala.
- b) Lege horren 29. artikuluan zehazturik datozen oinarrizko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.
- c) Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko arloan indarrean dagoen araudiak arrisku-egoeran dauden adingabeak babesteko esleitzen dizkien eskumenak.
- d) Guztiak dira zuzenak.



**5- “Técnicas en Trabajo Social: concepto de técnicas y clasificación (1990)” liburuaren arabera, EZ da elkarrizketatzeko prozesuaren egituraren zati bat:**

- a) Aurkezpena egitea eta eskaera aztertzea.
- b) Elkarrizketaren edo egoeraren balorazioa bueltatzea, elkarrizketa ixtea eta agurtzea.
- c) Jarraipena eta ebaluazioa.
- d) Hasierako helburuen definizioa eta zeregin eta eskumenen banaketa.

**6.- “Técnicas en Trabajo Social: concepto de técnicas y clasificación (1990)” liburuaren arabera, etxebizitzara egiten den bisita honela uler daiteke:**

- a) Erakundeen eta komunitatearen arteko lotura-tresna nagusietako bat da, eta, gainera, baliabide komunitarioak eta gizarte-laguntzako sareak in situ baloratzeko aukera ematen du.
- b) Familia-ingurunea aztertzeke eta behatzeko lanetan ari garen pertsonen etxean egindako elkarrizketa.
- c) Jarduketa-teknika bat da, behaketa eta elkarrizketa barne hartzen dituena, eta pertsonak eguneroko bizitza egiten duten lekuan elkarrekintza errazten du.
- d) Guztiak dira zuzenak.

**7.- 2012an onartutako Gizarte Lanaren Kode Deontologikoaren arabera, zein dira oinarrizko printzipioak?**

- a) Duintasuna eta berdintasuna.
- b) Askatasuna.
- c) Duintasuna eta justizia.
- d) a) eta b) zuzenak dira.

**8.- "La deliberación moral: el método de la ética clínica" artikuluaen arabera, deliberazioarekin EZ da bilatzen:**

- a) Arazoak bere konplexutasun osoan aztertzea.
- b) Inplikaturako printzipioak eta balioak haztatzea.
- c) Arazoak dilema bihurtzea eta muturreko ekintza-biderik onena bilatzea.
- d) Ekintza-bide posible guztiak edo, gutxienez, gehienak identifikatzea.

**9.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Fitxa Sozialari eta Gizarte Diagnostikorako Tresnari buruzko maiatzaren 28ko 353/2013 Dekretuaren arabera, Gizarte Diagnostikoa egin beharko da:**

- a) Gizarte-langileak, hasierako balorazioa egin ondoren, jarraipena eskatzen duen esku-hartze baten beharra antzematen duen kasu guztietan.
- b) Gizarte-langileak, esku hartu ondoren, egoeraren ebaluazioa egin beharra dagoela egiaztatzen duen kasuetan.
- c) Erabiltzaileak eskatzen badu bakarrik.
- d) Aurreko egoeretako bakar batean ere ez.



**10.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren arabera, zein EZ da udal-eskumenekoa?**

- a) Informazio-, balioespen-, diagnostiko- eta orientabide-zerbitzua.
- b) Telelaguntza-zerbitzua.
- c) Zaintzaileei laguntzeko zerbitzua.
- d) Etxez etxeko laguntza-zerbitzua.

**11.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko 185/2015 Dekretuan arautzen den esku-hartzearen jarraipenari dagokionez, adierazi zein den erantzun OKERRA:**

- a) Jarraipenaren aldizkakotasuna pertsona edo familia erabiltzaileen egoerara eta haien bilakaerara egokituko da.
- b) Genero-ikuspegia txertatuko da.
- c) Gutxienez 6 hilean behin egingo da.
- d) Aldizkako ebaluazioak (jarraipen-balioespenak) egingo dira eta ebaluazio horiek planaren helburuak eta jardunak alda ditzakete.

**12- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzu Sozialen Zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren arabera, EZ da udal-eskumeneko zerbitzu edo prestazio edo laguntza ekonomiko bat:**

- a) Gizarteratze-premiei erantzuteko gaueko harrera-zentroa.
- b) Ostatu-zerbitzuak / Tutoretzapeko etxebizitza bazterkeria-egoeran dauden pertsonentzat.
- c) Gizarte- eta hezkuntza-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua.
- d) Gizarte-zerbitzuen eremuko parte-hartzea eta gizarteratzea sustatzeko zerbitzua.

**13.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzu Sozialen Zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren arabera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren lehen mailako arreta maila osatzen dute:**

- a) Udalaren eskumeneko prestazioen edo laguntza ekonomikoen eta zerbitzuen multzoak, gei telelaguntza-zerbitzuak.
- b) Udalaren eskumeneko prestazioen edo laguntza ekonomikoen eta zerbitzuen multzoak.
- c) Udalaren eta Foru Aldundiaren eskumeneko prestazioen edo laguntza ekonomikoen eta zerbitzuen multzoak.
- d) Erantzun bakar bat ere ez da zuzena.

**14.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzei buruzko 4/2011 Dekretuaren arabera, gizarte-bazterkeriaren egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoetako -ohikoak zein apartekoak- aurre egiteko gastuak hauek dira:**

- a) Ohiko etxebizitza edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izateko beharrezkoak diren gastuak.
- b) Oinarrizko premiei buruzko gastuak.
- c) Aurretiko zorpetzeko gastuak, a) eta b) idatz-zatietan aipatutako gastu-kontzepturen batean sortuak, edo bizitzaren oinarrizko beste premia batzuei aurre egiteko gastuak.
- d) Horiek guztiak gastu espezifikotzat hartzen dira.



**15.- Errenteriako oinarrizko gizarte-zerbitzuetako erreferentziako profesionalak Udalaren gizarte-izaerako laguntza berezi baten egokitasuna zehazterakoan kontuan hartuko dituen parametroak dira:**

- a) Gastuaren beharra eta premia.
- b) Laguntza puntualaren eraginkortasuna planteatutako premia-egoera konpontzen laguntzeko, eta ekitate-irizpidea prestazio hori ematean.
- c) Kasu guztietan banakako arreta-programa bat (PIA) sinatzeko betebeharra.
- d) a) eta b) zuzenak dira.

**16.- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak emateko Errenteriako Gizarte Zerbitzuek jarduteko dituzten barne-irizpideetan, odontologia edo ortodontzia kontzeptuko laguntzekiko esaten da:**

- a) Ez dira laguntzak onartuko, nahitaezko gizarte-txostenean oso justifikatuta dauden salbuespenezko kasuetan izan ezik.
- b) Osakidetzako odontologoak txostena egin ondoren, erreferentziazko gizarte-langileak txostena egindakoan onartuko dira.
- c) Ezin dira izapidetu.
- d) Erantzun bakar bat ere ez da zuzena.

**17.- Errenteriako Gizarte Zerbitzuek "aurretiko zorpetzea" kontzeptupean Gizarte Larrialdietarako Laguntzak ematean jarduteko dituzten barne-irizpideen arabera, beharrezkoa da:**

- a) Laguntza ematea proposatzen duen teknikariak egoera hori eragin duten inguruabarrei buruzko balorazioa eta nahitaezko gizarte-txostena egitea.
- b) Gutxienez aurrez aurreko elkarrizketa bat egitea, beharra baloratzeko.
- c) Gutxienez elkarrizketa bat eta etxebizitzara bisita bat egitea, beharra baloratzeko.
- d) Erantzun bakar bat ere ez da zuzena.

**18- Errenteriako udalerrian etxez etxeko laguntza-zerbitzua arautzen duen Udal-Erregelamenduaren arabera, besteak beste, prestazio hauek sartzen dira etxez etxeko laguntza-zerbitzuan:**

- a) Informazioa eta jarraipenaren balioespena.
- b) Etxeko laguntza eta laguntza pertsonala.
- c) Arreta psikologikoa eta akonpainamendu soziala.
- d) a) eta b) erantzunetan jasotakoak.

**19.- Errenteriako 2016ko harrera- eta baliabide-gidaren arabera, bizikidetzaren printzipioak dira:**

- a) Genero berdintasuna.
- b) Justizia soziala.
- c) Ekologia eta parte-hartzea.
- d) a) eta c) zuzenak dira.



**20.- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen arabera, haurtzarora da:**

- a) Pertsonak Kode Zibilean ezarritako adin-nagusitasuna baino adin txikiagoa duten aldia.
- b) Pertsona jaiotzen denetik 18 urtera arteko aldia.
- c) Pertsona jaiotzen denetik legeak ezarritako adin-nagusitasunera edo emantzipaziora iritsi arteko aldia.
- d) Pertsona jaiotzen denetik 12 urtera arteko aldia.

**21.- Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babesteko otsailaren 18ko 3/2005 Legearen arabera, haur edo nerabe baten tutoretza gauzatzean, administrazio publiko eskudunak hauek sustatu ahal izango ditu:**

- a) Tutoretza arrunta; adopzioa.
- b) Familiaren egoitzara itzularaztea.
- c) Tutoretza arrunta, ezohiko tutela eta adopzioa.
- d) a) eta b) zuzenak dira

**22.- P. Hernando eta M. Marijuaún egileen "Metodo de análisis de conflictos éticos en la práctica asistencial" artikuluan, Diego Graciaren arabera minimoen etika adierazten duten 1. mailako printzipioak hauek dira:**

- a) Kalterik ez egitea eta justizia.
- b) Autonomia eta onura sortzea.
- c) Onura sortzea eta justizia.
- d) Justizia eta autonomia.

**23.- Adierazi zein den erantzun OKERRA: "Errenteriako Udalaren gizarte-izaerako laguntza bereziak jaso ahal izateko, besteen artean eskatzailea:**

- a) Benetan Errenterian biziko da eta gerora errolda-egoera erregularizatzea aurreikusita dago.
- b) Errenterian egongo da erroldatua espedientea izapidetzen hastean eta ebazpena ematen denean.
- c) Aparteko kasu gisa, Errenterian pasaeran egon daiteke.
- d) Soilik ondorengo egoeraren batean aurkituko da: Errenterian erroldatuta egotea eta/edo benetazko bizitokia Errenterian izatea.

**24.- 152/2017 Dekretuan eguneratutako Balora tresnan adierazten da eskekotasunaren larritasun-mailaren kalifikazioa, funtsean, honetan oinarrituta ezarriko dela:**

- a) Haurra edo nerabea zein maiztasun eta baldintzetan aritzen diren eskean.
- b) Egoera horrek bere osasun fisikoan eta ikastetxerako asistentzian duen edo izan dezakeen eragina.
- c) Haurraren edo nerabearen adina eta gaitasuna.
- d) a) eta b) zuzenak dira.



**25- 152/2017 Dekretuak (BALORA) planteatzen duen taxonomiaren arabera, haur eta nerabeen oinarrizko premiak hauek dira:**

- a) Behar fisikoak, segurtasuna, behar emozionalak, behar sozialak, behar kognitiboak eta hezkuntza-beharrak.
- b) Behar psikofisiologikoak, behar emozionalak, behar sozialak, behar kognitiboak, harreman-beharrak.
- c) Behar psikofisiologikoak, behar emozionalak, behar sozialak, segurtasuna, hezkuntza-beharrak.
- d) Behar fisikoak, segurtasuna, behar emozionalak, behar sozialak, behar kognitiboak.

**26.- 152/2017 Dekretuaren arabera (BALORA), haurren eta nerabeen segurtasun-beharrak ebaluatzeko gogobetetze-adierazleak dira:**

- a) Etxearen antolaketa segurtasunaren arabera izatea.
- b) Haur edo nerabearen harremanak ezagutzea eta kontrolatzea eta non dagoen jakitea.
- c) Haurrari edo nerabeari oinarrizko segurtasun-arauak erakustea.
- d) Guztiak dira zuzenak.

**27- "Gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoerentarako hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloak," erakundeek eta profesionalak, besteen artean errespetatu beharreko jarduketa orokorreko printzipio gisa jasotzen ditu:**

- a) Haurraren eta nerabearen interes gorena.
- b) Ahalik eta gutxien esku hartzea.
- c) Hezkuntza-tratamendua eta kalteak konpontzea.
- d) Guztiak dira zuzenak.

**28.- "Gerta daitezkeen haurren eta nerabeen babesgabetasun, tratu txar, sexu-jazarpen eta sexu-abusu egoerentarako hezkuntza-arloko prebentzio- eta jardun-protokoloaren" arabera, babesgabetasun-egoera posible baten aurrean eskolak EZIN izango du:**

- a) Haur edo nerabearen bat-bateko azalpena erregistratu.
- b) Haurraren edo nerabearen gorputza arakatu.
- c) Susmoaren zantzuei adi egon.
- d) Hezkuntza-esparruko laguntza-talde eta talde teknikoei berehala jakinarazi.

**29.- 385/2013 Dekretuan araututako gizarte-bazterkeria baloratzeko tresna kalkulatzeko sisteman, zein dira adierazle zerranda antolatze bizi-eremuak?**

- a) Ekonomia, lan eta egoitza arloa; bizikidetzar arloa; arlo pertsonala; osasun arloa; gizarte arloa.
- b) Ekonomikoa, laborala eta egoitzako arloa; bizikidetzar arloa; harreman arloa; arlo pertsonala; osasun arloa; gizarte arloa.
- c) Ekonomikoa; lanbide-prestakuntza; harreman arloa; arlo pertsonala; osasun arloa.
- d) Gizarte arloa; osasun arloa; arlo pertsonala; harreman arloa; arlo ekonomikoa.





**30.- Gizarte-bazterkeriaren egoerak Gizarte-bazterkeria baloratzeko tresnari buruzko 385/2013 Dekretuaren arabera baloratzeko, irizpide hauek hartzen dira kontuan:**

- a) Baliabide materialak eta ostaturik ez izatea.
- b) Formaziorako eta harremanetarako baliabideak eta baliabide materialak ez izatea.
- c) Gabezia pertsonalak eta harremangabeziak eta autonomia pertsonal eta ekonomikoaren murrizketa.
- d) Autonomia pertsonal eta ekonomikoaren murrizketa eta baliabide materialak eta formaziorako baliabideak ez izatea.

**31. - EZ da etxerik gabeko pertsonentzako 2018-2021eko Euskal Estrategiaren helburua :**

- a) Etxegabetasunaren prebentziora bideratutako politikak indartzea.
- b) Etxegabetasuna desagerraraztea.
- c) Euskadiko etxerik gabeko pertsonentzako egungo arreta-eredua birbideratzea, pertsonarengan arreta jarritako eta etxebizitzara bideratutako arreta-eredu bat sortzeko asmoz.
- d) Etxerik gabeko pertsonen osasunaren, diru-sarreraren bermearen eta laneko aktibazioaren arloan dituzten eskubideetarako sarbidea bermatzea, horien bizilekua edozein delarik ere.

**32.-"2018-2021 aldirako etxerik gabeko pertsonentzako Euskal Estrategiaren" arabera, 2020. urterako Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri handietan kalean lo egiten zuten pertsonen gutxieneko murrizketa kuantitatiboa ondorengoa izatea aurreikusten zen:**

- a) %10
- b) %15
- c) %20
- d) %30

**33. - Etxebizitza ez-seguruen tipologiak, ETHOS sailkapenaren arabera, egoera hauek barne hartzen ditu:**

- a) Aldi baterako egitura batean bizitzea; legezko titulurik gabeko etxebizitza batean bizitzea; indarkeriaren mehatxupean bizitzea.
- b) Indarrean dagoen legediaren arabera egokia ez den etxebizitza batean bizitzea; etxebizitza uzteko legezko jakinarazpena izatea; aldi baterako alijamendu batean bizitzea.
- c) Legezko jabetzarik gabeko etxebizitza batean bizitzea; etxebizitza uzteko legezko jakinarazpena izatea; familiaren edo bikotekidearen indarkeria pairatzeko mehatxupean bizitzea.
- d) Aldi baterako alojamendu batean bizitzea; indarrean dagoen legediaren arabera egokia ez den etxebizitza batean bizitzea; etxebizitza uzteko legezko jakinarazpena izatea.

**34. - Etxerik gabeko tipologiak (Roofless) bizitegi-egoera honi edo hauei erantzuten die:**

- a) Espazio publiko batean bizi izateari (etxebizitzarik gabe).
- b) Gaueko aterpe batean lo egin eta/edo egunaren gainerako denbora espazio publiko batean eman behar izateari.
- c) Zentro, aterpe eta instituzioetan bizitzea.
- d) a) eta b) zuzenak dira.



**35.- Emakumearen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmena aplikatuko da:**

- a) Emakumeen aurkako indarkeria-mota guztietan, etxeko indarkeria barne, neurritz kanpo eragiten baitie.
- b) Etxeko indarkeriaren biktima guztiei, arreta berezia jarrita generoan oinarritutako indarkeriaren biktima diren emakumeei.
- c) Bake garaian eta gatazka armatuko egoeretan.
- d) Guztiak dira zuzenak.

**36.- Bigarren mailako prebentzio-programak, BALORA tresnaren arabera, egoera hauetan aplikatzen dira:**

- a) Babesgabetasun-arriskurik gabeko egoeretan, babesgabetasunarekiko kalteberatasun-egoeretan eta babesgabetasun-arrisku arineko egoeretan.
- b) Babesgabetasunarekiko kalteberatasun-egoeretan eta baita babesgabetasun-arrisku arineko egoeretan ere.
- c) Babesgabetasun arrisku arineko eta-arrisku moderatuko egoeretan.
- d) Babesgabetasunarekiko kalteberatasun-egoeretan, babesgabetasun arrisku arineko eta-arrisku moderatuko egoeretan.

**37.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzu sozialen zorroari buruzko 185/2015 Dekretuaren xede dira:**

- a) Zorroaren prestazioak eta zerbitzuak emateari dagokionez, edukia ematea eta eskubide subjektiboa eta euskal administrazio publikoek dituzten betebeharrak mugatzea.
- b) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazioak eta zerbitzuak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzea.
- c) Diru-sarrerak bermatzeko sistemaren oinarritzko prestazioak eskuratzeko baldintzak, irizpideak eta prozedurak arautzea.
- d) a eta b zuzenak dira.

**38.- Enuntziatu hauetatik, zein EZ dator bat Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko 39/2006 Legean aitortutako mendetasun-egoeran dauden pertsonen eskubideekin?**

- a) Beren mendetasun-egoerari buruzko informazio oso eta jarraia jasotzeko eskubidea, ulertzeko moduan eta modu eskuragarrian.
- b) Irakaskuntza- edo ikerketa-proiektu baten arabera aplikatzen zaizkien prozedurak erabiltzeko eskubidea, betiere administrazio eskudunak hala erabakitzen badu.
- c) Jarduteko behar besteko gaitasuna duenean, bere buruaz edo ondasunez nor arduratuko den erabakitzeko eskubidea, autogobernatzeko gaitasuna galtzea gerta daitekeen kasuetarako.
- d) Giza eskubideez eta oinarritzko askatasunez baliatzeko eskubidea, beren duintasun eta intimitatea erabat errespetatuta.



**39.- Ezgaitasuna edo mendekotasuna duten pertsonentzako Etxean programako banakako laguntzak arautzen dituen abenduaren 23ko 87/08 Foru Dekretuaren arabera, bizimodu independentea errazteko laguntzak lortzeko eskakizun espezifikoak izango da:(10. or.) 48. gaia**

- a) Laguntza ematen zaion garaian eta, erabiltzen duen bitartean, pertsonalki erabil dezakeen etxebizitza egoki bat edukitzea, edozein tituluren pean dela ere, prekarioa barne.
- b) Udaleko gizarte zerbitzuek egindako egokitasuneko gizarte txostena.
- c) Mendekotasun egoeran dagoen pertsonaren kalifikazioa izatea edo, ezgaitua izanik, 15 puntu edo gehiagoko beste norbaiten laguntza beharra (ATP) izatea.
- d) b) eta c) zuzenak dira.

**40.- EZ da Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko 39/2006 Legearen printzipio bat.**

- a) Mendetasun-egoeran dauden pertsonen arreta modu integral eta integratuan ematea.
- b) Mendetasun-egoeran dauden pertsona guztientzat egoitza-baliabideen eta eguneko baliabideen beharrezko hazkundera sustatzeko neurriak ezartzea.
- c) Autonomiaren Aldeko eta Mendetasunari Arreta Eskaintzeko Sistemak eskaintzen dituen zerbitzuen izaera publikoa.
- d) Prebentzioaren, errehabilitazioaren, pizgarri sozial eta mentalen arloan beharrezko neurriak hartzea.

**41.- 39/2006 Legean jasotakoaren arabera, zerbitzuari lotutako prestazio ekonomikoa EZ da prestazio ekonomikoa bat:**

- a) Zerbitzu bat eskuratzeari lotua.
- b) Izaera iraunkorrekoa.
- c) Arreta- eta zaintza-zerbitzu publiko edo hitzartu bat eskuratzerik ez dagoenean soilik aitortzen dena.
- d) Onuradunaren mendetasun mailaren eta gaitasun ekonomikoren arabera aitortzen dena.

**42.- Markatu ezazu Mendekotasunaren prestazio ekonomikoei buruzko abenduaren 12ko 24/2017 Foru Dekretuan adierazten diren ezaugarriekin bat EZ datorren erantzuna:**

- a) Finalistak dira.
- b) Aldian-aldian ematen dira.
- c) Besterenezinak dira.
- d) Guztiz edo partzialki laga daitezke.

**43.- 24/2017 Foru Dekretuak, besteak beste, familia-ingurunekeo zaintzarako prestazio ekonomikoa arautzen dituenak, esaten du prestazio hori bateragarria dela:**

- a) Zentro soziosanitarioekin, egonaldia ez bada 4 hilabete jarraian baino handiagoa.
- b) Aldi baterako egonaldi etenekin urtean zehar, denbora-mugarik gabe.
- c) Adinekoentzako egoitza-arreta iraunkorreko zentroekin.
- d) %75eko edo gehiagoko desgaitasun-maila duen 18 urtetik gorako seme-alabaren baten ardura dutenen esleipen ekonomikoa osagarriekin.



**44.- Egoitza-zerbitzuetarako eta eguneko zentroetarako sarbideari buruzko martxoaren 24ko 7/2015 Foru Dekretuaren arabera, desgaitasuneko egoitza-zentroek laguntza-maila hauek eskaintzen dituzte:**

- a) Estentsiboa, arina, larria, tartekakoa.
- b) Tartekakoa, arina, larria, orokorra.
- c) Mugatua, ertaina, larria, zabala.
- d) Tartekakoa, mugatua, zabala edota orokorra.

**45.- Aurkezten ditugun 4 aukeretatik, zein EZ dator bat aldi baterako egonaldietarako egoitza-zerbitzua arautzen duen 12/2015 Foru Dekretuan jasotako aldi baterako egonaldien tipologiekin?**

- a) Atsedenerako egonaldiak.
- b) Zainketa jarraipena bermatzeko aparteko egonaldiak.
- c) Norberak aukera ditzakeen egonaldiak.
- d) Egoera soziosanitarioa, behar mediko-asistentzialak estaltzeko.

**46.- "EAEko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozeduran" agertzen den galdetegiaren arabera, arrisku-faktoreak dira adinekoen ingurunean:**

- a) Zaintzaren antolaketa txarra.
- b) Adineko pertsonaren eta bizikide dituenen arteko elkarbizitza gatazkatsuari lotutako egungo edo lehenagoko gertaerak.
- c) Isolamendua edo nahi gabeko bakardade larria.
- d) a) eta b) zuzenak dira.

**47.- Adingabearen Babes Juridikoari buruzko urtarrilaren 5eko 1/1996 Lege Organikoaren arabera, adingabe baten arrisku- edo balizko babesgabetasun-egoera baten aurrean, agintari eskudunari jakinarazi behar dio:**

- a) Egoera hori hautematen duen pertsona orok, behar duen berehalako laguntza emateari kalterik egin gabe.
- b) Gizarte Zerbitzuen alorreko profesionalek.
- c) Adingabearekin harremanetan dauden edozein alorretako profesionalek.
- d) Aurreko erantzunetatik bakar bat ere ez da zuzena.

**48.- Desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko 1971/1999 Errege Dekretuaren arabera, desgaitasunaren balorazioan:**

- a) Desgaitasunaren kalifikazioa solik osasun irizpideen arabera egiten da
- b) Pertsonaren desgaitasunak balorazioaren lehentasunezko helburu dira.
- c) Pertsonaren desgaitasunak zein mendetasun egoera dira balorazioaren helburu.
- d) Hauek baloratuko dira: pertsonak dituen desgaitasunak eta, hala badagokio, gizarteratzea zailtzen duten gizarte-faktore osagarriak, besteak beste, familia-ingurunea eta lan-, hezkuntza- eta kultura-egoera.



**49.- Errenteriako Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Planean (2013-2016), indarkeria-kasuen arreta hobetzeko, tresna/ekimen hauek planteatzen dira:**

- a) Profesionalen formazioa eta sentsibilizazioa.
- b) Baliabideak/zerbitzuak areagotzea eta hobetzea.
- c) Erakundeen arteko elkarlana eta kasuen segimendu koordinatua bermatzeko urratsak egin eta bitartekoak jartzea.
- d) Aurreko guztiak.

**50.- Adierazi zein den erantzun OKERRA, Errenteriako etxez etxeko laguntza-zerbitzuaren ezaugarriei dagokienez:**

- a) Zerbitzua emateko denbora-mugak erabiltzaileen premien banakako ebaluazioaren arabera ezartzen dira.
- b) Gehienezko prestazioa astean hogeita zortzi ordukoa izango da.
- c) Sarrera bakoitzean zerbitzua emateko gutxienezko denbora 30 minutukoa izango da.
- d) Zerbitzua soilik, astelehenetik ostiralera ematen da.

## ERRESERBAKO GALDERAK:

**51.- Kontuan hartuta 7/2015 Foru Dekretua, martxoaren 24koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoan mendekotasun egoeran dauden pertsonak egoitza zerbitzuetan eta eguneko zentroetan sartzeko araubidea arautzen duena, buruko gaitza duten pertsonentzako errehabilitazio psikosozialeko egoitza zerbitzua eta eguneko zentroko zerbitzua eskuratzeko baldintza espezifikoak izango da:**

- a) Mendekotasun egoeran dagoen pertsonatzat baloratuta egotea, I., II. edo III. graduaz, Mendekotasuna Baloratzeko Baremoaren (MBB) arabera.
- b) Mendekotasun egoeran dagoen pertsonatzat baloratuta egotea, gutxienez II. edo III. graduaz, Mendekotasuna Baloratzeko Baremoaren (MBB) arabera.
- c) Pertsonak erreferentziako Osasun Mentaleko Zentroko (OMZ) psikiatraren aldeko txostena izatea, mendekotasuna Baloratzeko Baremoa (BVD) dela-eta mendetasun-egoeran ez dagoen kasuetan.
- d) Eskaera aurkezten den egunean 60 urte edo gehiago izatea.

**52.- Emakumearen aurkako prebentzioari eta borrokari eta etxeko indarkeriari buruzko Europako Kontseiluaren Hitzarmenaren ondorioetarako, "emakume" terminoak hauek barne hartzen ditu:**

- a) 18 urtetik gorako emakumeak.
- b) 18 urtetik beherako neskek.
- c) 16 urtetik gorako emakumeak.
- d) a) eta b) zuzenak dira.



**53.- "EAEko adineko pertsonenganako tratu txar fisiko eta ekonomikoak prebenitu eta hautemateko prozeduran" dagoen tratu txar fisikoen eta ekonomikoaren arrisku- faktoreak prebenitu eta hautemateko galdetegiaren helburua da:**

- a) Arriskuan edo egoera zaurgarrian dauden pertsona adinduak antzematea eta arriskua sortzen duten eragileei jarraipena egitea.
- b) Egunerokotasunean tratu txarrak jasateko egoera zaurgarrian dauden 75 urtetik gorako pertsonak identifikatzea.
- c) Egoera zaurgarrian edo tratu txarrak jasateko arriskuan dauden 65 urtetik gorakoak identifikatzea, batez ere eguneroko bizitzako jardueretarako mendekotasun-egoeran dauden adineko pertsonen dagokienez.
- d) Egunerokotasunean egoera zaurgarrian eta menpekotasun-egoeran dauden 80 urtetik gorako pertsonak identifikatzea.

**54.- Gipuzkoako Pobreziari eta Gizarte Bazterketari buruzko 3. Inkestaren emaitzen arabera, 2018an biztanleriaren zer ehunekoa zegoen pobrezia erlatiboan edota diru-sarrera apalak pairatzeko arriskuan?**

- a) %9,8
- b) %16,4
- c) %5,7
- d) %6,9

**55- Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen arabera, oinarrizko gizarte-zerbitzuaren funtzio nagusia hau izango da:**

- a) Bere jarduketaren lurralde-eremuaren barruan, gizarte-zerbitzuen esparruan artatu daitezkeen gizarte-premiak hautematea eta horiei arreta ematea, beren eragin-eremu geografikoan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako instantzietarako sarbidea koordinatuz eta kudeatuz.
- b) Gizarte-premiak asetzean sortzen diren disfuntzioak edo gabeziak hautematea.
- c) Homogeneizazio- eta sistematizazio-irizpideekin informazioa prestatzea, Gizarte Zerbitzuei buruzko Informazioaren Euskal Sistemaren esparruan.
- d) Agintzen zaizkion lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak ematea.

**56.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Gizarte Zerbitzuen Zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuaren arabera, hasierako balorazioa egin ondoren, litekeena da oinarrizko gizarte-zerbitzuko profesionalak hau egiaztatzea:**

- a) Kasuak ez du Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren esku-hartzerik behar.
- b) Planteatutako beharra Udaleko Gizarte Zerbitzuaren esku-hartze puntual baten bidez bete daiteke, eta esku-hartze horrek ez du jarraipenik beharko.
- c) Litekeena da jarraipena beharko duen esku-hartzea beharrezkoa izatea.
- d) Erantzun guztiak zuzenak dira.



**57.- Kultur Aniztasuneko azpisailak sortutako Errenteriako harrera- eta baliabide-gidaren arabera, Errenteriako udalerrriak badu protokolo bat herrira iritsi berriak diren pertsoneri harrera egiteko, eta haren helburua da:**

- a) Errenteriara etorri berrien autonomia berrantolatzea.
- b) Parte-hartzea motibatzea eta osasunaren zaintza sustatzea.
- c) Parte-hartzea eta genero berdintasuna sustatzea.
- d) Autonomia eta justizia soziala sustatzea.

**58.- Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun-egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko 39/2006 Legeak honela definitzen du mendetasuna:**

- a) Adin, gaixotasun edo ezintasunen bat dela-eta, pertsona batzuek modu iraunkorrean bizi duten egoera, autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsorialaren gabezia edo galerarekin zerikusia duena.
- b) Eguneroko bizitzako oinarrizko ekintzak aurrera eraman ahal izateko beste pertsona baten edo batzuen arreta edo laguntza handia behar duten pertsonen egoera, edo adimen-ezintasuna edo gaixotasun mentala dutenen kasuan, autonomia pertsonala izateko beste laguntza mota batzuk behar dituzten pertsonen egoera.
- c) Pertsonen egoera iraunkor edota aldi baterakoa, adinagatik, gaixotasunagatik edo desgaitasunagatik, eta autonomia fisiko, mental, intelektual edo sentsorialaren falta edo galerarekin zerikusia duena.
- d) a) eta b) zuzenak dira.



**GIZARTE LANGILEAK**  
**ASISTENTES/AS SOCIALES**

**1. ariketaren 2. atala**

2º Apartado del 1<sup>er</sup> ejercicio

2021-09-24







**1.- A efectos de la Ley 31/1995, de 8 de noviembre de riesgos laborales y de las normas que la desarrollan, se entenderá por “prevención”:**

- a) El conjunto de actividades o medidas adoptadas o previstas en todas las fases de actividad de la empresa con el fin de evitar o disminuir los riesgos derivados del trabajo.
- b) Parte de determinadas actividades o medidas adoptadas o previstas en algunas de las fases de actividad de la empresa con el fin de evitar o disminuir los riesgos derivados del trabajo.
- c) El conjunto de actividades o medidas adoptadas o previstas en solo algunas de las fases de actividad de la empresa con el fin de reducir los riesgos.
- d) El conjunto de determinadas actividades en algunas de las fases de actividad de la empresa con el fin de reducir los riesgos.

**2.- Los ejes de trabajo del Plan de igualdad de mujeres y hombres de Errentería 2013-2016 son los siguientes:**

- a) Eliminar la violencia machista y el empoderamiento de las mujeres.
- b) Buen gobierno.
- c) Poner la sostenibilidad en el centro de la vida.
- d) Todas las anteriores son ejes de Plan.

**3.- Según la Ley 12/2008 de 5 de diciembre, de Servicios Sociales del País Vasco las personas que se encuentren en la Comunidad Autónoma del País Vasco entre otros, podrán acceder:**

- a) Al servicio de información, valoración, diagnóstico y seguimiento.
- b) Al acompañamiento social.
- c) A las prestaciones sociales definidas como generales en la Cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales.
- d) Ninguna respuesta es correcta.

**4.- Según la Ley 12/2008 de 5 de diciembre, de Servicios Sociales del País Vasco será competencia de los Ayuntamientos, en el ámbito de sus respectivos términos municipales, entre otros, la realización de las siguientes funciones:**

- a) La potestad reglamentaria para la organización de sus propios servicios en materia de servicios sociales.
- b) La creación, organización y gestión de los servicios sociales de base previstos en el artículo 29 de dicha ley.
- c) Las competencias que en materia de protección a las personas menores de edad en situación de riesgo les atribuye la normativa vigente en materia de atención y protección a la infancia y la adolescencia.
- d) Todas son correctas.



**5.- Según el libro “Técnicas en Trabajo Social: concepto de técnicas y clasificación” (1990), NO es parte de la estructura del proceso de entrevistar:**

- a) La presentación y el estudio-análisis de la demanda.
- b) La devolución, cierre y despedida.
- c) El seguimiento y la evaluación.
